

## Gipuzkoa eta Bizkaiko hondartzetan 2.600 galipota tona bildu dira, baina, jende asko dabil aurten ere

■ Eusko Jaurlaritzak dio oraingo egoera lehengoa baino lasaiago dela, baina, erne egon behar dela ■ Gipuzkoan hondartza kaltetuenak Zumaiakoa, Getarikoa eta Zarauzkoa izan dira ■ Ekologistak Martxan taldeko kide den Itziar Mielgok dio arazoaren sustraietara jo behar dela.

AURTENGOAN hondartzara joan ezkerro badugu kontuan hartu beharreko gauza bat: txapapotea. Iazko azaroan Prestige itsasontzia ondoratu zen barruan 77.000 galipota tona zeuzkala, baina Gipuzkoako kostaldera galipota urtarrilean hasi zen iristen. Hernaniarrek beti jo izan dute inguruan dauden hondartzetara, eguzkia eta itsasoko uraren bila. Aurten ere hondartzak bete-beteta ikusi daitezke, galipotak ez baitu hondartzarako joera hori gelditu.

### Jasotako galipota

Eusko Jaurlaritzak egunero kostaldeari buruzko informazioa kaleratzen du: Gipuzkoa eta Bizkaiko hondartzetara eta itsasoari buruzkoak. Datu hauen arabera orain arte Gipuzkoako eta Bizkaiko kostaldean, itsasoan, 21.000 galipota tona inguru bildu dira eta Gipuzkoako eta Bizkaiko hondartzetan aldiz, 2.600 galipota tona inguru bildu dira. Abuztuan, Gipuzkoako hondartzetan egunero bildutako galipota media 1,81 tonakoa da, baina galipota gehiena jaso ziren egunak urtarrila bukaeran eta otsaila hasieran izan ziren, garai hartan egunero 50-125 galipota tona bitarte biltzen bait ziren Gipuzkoako hondartzetan. Gipuzkoako eta Bizkaiko kostaldean, itsasoan, abuztuan 2-14 tona galipota inguru bildu dira, itsasoan ere urtarrila bukaeran jaso zen galipota gehiena, urtarrilaren 26an adibidez 1.260 galipota tona bildu ziren itsasoan.

Prestige ondoratu zenean Eusko Jaurlaritzak *Erakunde arteko eta Sail arteko Batzordea* jarri zuen martxan. Batzorde hau hondartza eta



Jendea hanka azpian txapapotea ote duen begira egoten da.

itsasoko galipota kontrolatu eta garbitzeaz arduratzen da. Itsasoan aritzea erabiltzen duten azpiegitura honakoa da: remolkadore bat, gangil bat, Ertzaintzaren itsasontziak, Herrizaingo saileko helikopteroak, arrain-ontziak, hainbat kirol-ontzi eta galipota biltzeko diseinatu zuten *Gure Itxaso garbia* izeneko itsasontzia. Lehorrean duten azpiegitura aldiz: 200 garbitzaile profesional eta 244 sokorrista dira.

Bildutako galipotaren %37 Bizkaian dagoen SADER izeneko enpresaren bertederora eramaten da, zikinkeria askorekin nahastuta dagoenez ezin da berriro erabili. Gaine-

rantzeko %63 Petronorreko refinariara eramaten dute.

### Jaurlaritzaren balorazioa

Eusko Jaurlaritzaren arabera hondartzan ibiltzeak edota bainua hartzeak ez dakar inongo arriskurik, baldin eta gomendio hauek jarraitzen badira: sokorristei kasu egitea;

hondartzan oinutsik ez ibiltzea; haurrak zaintzea, begietara edota ahora hondarik sartu ez dezaten; haitz zonaldeetan ez ibiltzea; eta galipotarekin kontaktatu zuzenik eduki ezkerro lehenengo paperarekin, gero olio edo kremarekin, eta azkenik urarekin garbitzea dira gomendio horiek.

Eusko Jaurlaritzaren arabera hondartzan ibiltzea edo bainatzeak ez du arriskurik, gomendioak betetzen badira

Hondartzen egoerari buruz Jaurlaritzak dio, Gipuzkoako hondartzen egora lasaia dela nahiz eta oso erne egotea beharrezkoa den. Gipuzkoako hondartzera galipota iristen denean hondartzarik kaltetuenak Zarautz, Zumaiakoa eta Getariako hondartzak direla dio Jaurlaritzak.

Hartutako neurriak baloratzean Jaurlaritzak dio hartutako bi neurri hauek azpimarratzen dituela: itsasotik ahalik eta galipota gehiena biltzea, hondarra edo harkaitzak garbitzea baino errazagoa delako; eta hartutako erabaki

guztien berri ematea, informazio argia zabalduz.

### Arazoaren sustraietara jo

Ekologistak Martxan taldeko kide den Itziar Mielgok plaza-ratutako idatzian dio, Prestige-arena globalizazio ekonomikoren beste ondorio bat dela eta horrelakorik berriro ez gertatzeko arazoaren sustraietara jo behar dela: "Prestigearen auzian mugimendu sozial handi bat garatu da. Baina ez da egungo industrializazioa eta gizarte eredu kritikatu, aldaketa batzuk eskatzen dituzte bakarrik (krosko bikoitzeko txalupak, dimisioak, segurtasun portuak). Berriro ere arazoaren sustraietara jo beharrean globalizazio ekonomikoarekin jolasean jarraituko dugu".

Itziar Mielgok dio petrolioaren gainean dugun menpekotasunarekin bukatu behar dugula, baina hau ez dela posible hainbat politikari eta multinazionalen interes ekonomikoak direla eta. Talde Ekologisten borrokari buruz dio: "Prestige bezalako hondamendiek edota Irakeko inbasiak erakusten dute beste politika energetiko bat behar dugula. Horrexek izan behar du mugimendu ekologistaren borroka: bestelako energia garbia, agortezina, mundu osora zabal daitekeena, norberak kudea dezakeena...zabaltzea". □

### Gipuzkoako hainbat hondartzetan jasotako galipota (Kg.)

<b>Abenduak 6</b>	Zarauz (1.170)	Zurriola (440)	Kontxa (170)	Itzurun (132)	Ondarreta (40)
<b>Abenduak 7</b>	Zarauz (370)	Malkorbe (40)	Saturrarán (20)	Kontxa (20)	x
<b>Abenduak 10</b>	Zarauz (1.600)	Kontxa (1.000)	Zurriola (550)	Saturrarán (200)	Ondarreta (150)
<b>Abenduak 11</b>	Zarauz (1.920)	Gastetape (500)	Zurriola (390)	Kontxa (300)	Ondarreta (205)
<b>Abenduak 12</b>	Zarauz (1.800)	Lapari (210)	Zurriola (35)	Ondarreta (30)	Kontxa (27)
<b>Abenduak 13</b>	Zarauz (920)	Santiago (700)	Ondarreta (51)	Kontxa (140)	Zurriola (60)

Datuak: [www.prestige.ej-gv.net](http://www.prestige.ej-gv.net) (Iturria: Eusko Jaurlaritza)

**Eguzki perfumeria**

**Eguzki perfumeria**

Gure dendan, behar dezuna daukagu.

- Perfumeria
- Opariak
- Edertze gela
- Solariuma
- Ileapaindegia

Kale Nagusia 45, Tel.: 943 551333

**ARALAR TABERNA**

Zapa 8 - ☎ 943 33 15 06 -

**YGALDETZO**

Jatetxea

Bazkariak eta Afariak

Ereñozu auzoa  
Tel.: 943 550240  
20120 Hernani (Gipuzkoa)

**JOMER**

EDARITEGIA

Kale Nagusia, 7  
☎ 55 00 32  
HERNANI

## INGURUKO HERRIETAKO FESTAK



Goian, Santio Mendin soka dantzan eta erdian, Txistulariak Aranoko San Roke ermita aurrean. Behean, Aranon eta Santiomen ermita betean meza ematen.

# San Roketan jende asko eta lehendabiziko euri tantak

■ Aranon eta Santio Mendin jende asko bildu zen Urteroko moduan ■ Donostian gaur bukatuko da Aste Nagusia ■ Goizuetan profesional mailako pelota partiduak.

JENDE asko bildu zen atzo Aranon eta Santio Mendin San Roke egunarekin. Aranon txistulariak aritu ziren eta omenaldia egin zitzaion Xabier Narbarteri, 25 urtean San Roketan txistua jotzen ibilizana eskertzeko. Santio Mendin soka dantza egin zuten txistulariek lagunduta eta metzetatik ateratako guztien arreta bereganatu zuten dantzariak.

**Gaur Donostia eta Goizuetan** Festa giroan segi nahi duenak Hernani inguruan badu aukerarik. Donostian gaur da Aste Nagusiko azken eguna eta giroa seguru izango da. Goizuetan ere aurrera dijoaz Amabirjinak eta gaur pelota partiduak izango dira, besteak beste, arratsaldeko 19:30etan. □

## EGITARAUA

### GAUR DONOSTIAN

10:00 Skate Haur Txapelketa, Anoetan.  
10:00 II Arraitxiki Eguna kaian.  
10:30 III Aste Nagusiko Billar Txapelketa, Idiak ez kaleko gizarte elkartean.  
11:00 Erraldoi eta Buruhaundiak elkartzea, Zuloaga plazan.  
17:30 Haur festa, Sarriegi plazan.  
18:00 Zezenak Illunben.  
18:00 Fanfarreak kaleetan.  
19:00 *Swingset* taldea, Zuloaga plazan.  
19:30 Harrijasotzaileak, *Igeldoko Harria*, Trinidad plaza.  
20:00 Fila 7 taldearen *Yo me bajo en la proxima...* antzezlan, Antzoki Zaharrean.  
20:00 Folklore jaialdia, Konstituzio plazan.

22:45 Su Artifizialak. (Valentzia)  
23:00 Fila 7 taldearen *Yo me bajo en la proxima...* antzezlan, Antzoki Zaharrean.  
23:15 Zezensuzkoa.

### GAUR GOIZUETAN

07:00 Diana Dultzaineroekin.  
08:00 Entzierroa Itziarko *Saka*-ren zezenekin.  
12:00 Txistularien banda eta, erraldoi eta buru-haundiak herriko kaleetan.  
12:30 *Gaztelubideko Otxotea*, plazan.  
18:00 Zezenak.  
19:30 Pelota partidua, *Asegarce* enpresako pelotariekin.  
00:00 Dantzaldia *Triki Dantz* taldearekin, eta *Igandea* txaranga herriko kaleetan.  
00:00 Kontzertua, Gaztetxean.

## 50 euroko faltsuak dabilzala abisua pasa du Udaltzaingoak

HERRIAN 50 euroko faltsuak dabilzala abisua pasa du Hernaniko Udaltzaingoak eta kontuz ibiltzeko dei egin die herrietarrei, batez ere dendari

eta tabernariei. Dirudienez, azken egunetan 2 lagunek salatu dute beren komertzioan 50 euroko faltsuarekin ordaindu dutela. □

## ■ XAKEA

### Datorren denboraldia prestatzeko bilera asteartean


DATORREN asteartean, bilera deitu du Hernaniko Xake taldeak, arratsaldeko 20:00etan, lokalean (Aristizabal kalean, Atsegindegitik gora). Datorren

denboraldia prestatzeko antolatuko dute bilera eta deituak daude lehengo urtean xakean ibilitakoak eta aurten jokatzeko hasi nahi duten guztiak. □

## HERNANIKO IBILBIDEAK

### Oriamendi eta Jauregin barrena

HERNANI inguruko ibilbideekin segiz, Oriamendi eta Jauregin barrena egin beharrekoa azalduko dugu gaur. Antziolara joatea da lehenengo pausoa, eta auzoa atzekaldetik zeharkatzen duen bidea hartuko dugu. Eskubira Arizmendiko jatetxerako kruzea hartu behar da eta porlanezko bidean sartuko gara. Aurreraxeago lehenengo kruzea ezkerretara hartuko dugu Arizmendirako bidea utzita, eta bideari segiz Galarretara iritsiko gara. Galarretatik Jauregiko jatetxera dijoan bidea hartu behar da eta Pittikar baserriraino joan. Bidean paisaje ederra eta gure herriaren historiaren lekuko den Inglesaren Harria topatuko ditugu. Pittikarren ezkerretara jo eta bideari segiz Santa Barbarako harrobi-



Antziola auzo atzetik dijoan bidean goazela hartu eskubira.

ra iritsiko gara, Butanotik barrena. Bideak 5 kilometro ditu eta lasaia da.

\* Ibilbide hau *Hernanin Zehar* Dobera Euskara Elkarteko kultur koadernotik aterea da. Kultur koadernoaren egilea Xabier Santa Cruz da. □



Goian, Inglesaren harria. Behean, Pittikar baserri parera iristen ezkerretara hartu beharreko bide gurutzia.

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093  
►Udaltzaingoa: 943 333288  
►DYA: 943 464622  
►Autobusak: 943 556662  
►Anbulatorioa: 943 006666  
►Jokalaria anonimoak: 943 331103

### ☼ FARMAZIAK

►Egunez: Gomez Justel  
Kale Nagusia 14  
☎ 943 554892  
►Gauetz: Gomez Justel  
Kale Nagusia 14  
☎ 943 554892